

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
ZIENTZIETAKO ETA INGENIARITZAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA**

4/2024 EBAZPENA, urtarrila 25 ekoa

2024-05-23

TEKNOLOGIA INDUSTRIALA

KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA: 2



DEITURAK _____

IZENA _____

NANa/ANTa _____

- **Ariketa guztiek berdin balio dute (ARIKETA BAKOITZAK, 2 PUNTO)**
- **Ariketa bakoitzeko azpiatalek berdin balio dute.**

1.-) 6000W-ko igogailu batek polea bat du. Polearen erradioa 30 cm-koa da eta 5 rad/s-ko abiadura angeluarrarekin biratzen du.

- a) Kalkula ezazu poleak ematen duen momentua (parea edo torkea).
- b) Zenbat pisu garraia dezake igogailuak?
- c) Zein da igogailuaren abiadura lineala?
- d) Zein altuerara igoko da 2 segundotan?

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
ZIENTZIETAKO ETA INGENIARITZAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrila 25 ekoa

2024-05-23

TEKNOLOGIA INDUSTRIALA

2.-) Ate logikoekin egindako zirkuitu batek hiru sarrera seinale bitar ditu (a, b, c).
Zirkuitu horri dagokion egia taula honako hau da:

a	b	a	F
0	0	0	0
0	0	1	0
0	1	0	0
0	1	1	1
1	0	0	0
1	0	1	1
1	1	0	1
1	1	1	1

- a) Zirkuituaren funtzio logikoa (F) lortu ezazu.
b) Marraz ezazu zirkuitua ate logikoekin.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
ZIENTZIETAKO ETA INGENIARITZAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrila 25 ekoa

2024-05-23

TEKNOLOGIA INDUSTRIALA

3.- Berogailu elektriko bat 230V-eko sare elektrikora konektatuta egon da 10 minutuz eta 2A kontsumitu ditu.

- a) Kontsumitu duen energia elektrikoa kalkula ezazu.
- b) Kalkula ezazu berogailuaren erresistentzia elektrikoa.
- c) Kalkulatu isurtzen duen beroa, % 85eko errendimendu termikoa badu.
- d) Isuritako beroa 2 litro ur (2000 gramo) berotzeko erabiltzen da. Kalkula ezazu urak hartzen duen temperatura, hasieran 15°C-tan badago. Uraren bero espezifikoa 4,19 J/g °C da.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
ZIENTZIETAKO ETA INGENIARITZAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrila 25 ekoa

2024-05-23

TEKNOLOGIA INDUSTRIALA

4.-) Gezi bidez lotu ezkerreko definizioak eta eskuineko izenak.

Burdin-karbono aleazioa, %1eko karbonoarekin	Alpaka
Kobre, nikel eta zinkeko aleazioa	Burdinurtua
Polimeroa	Altzairua
Burdin-karbono aleazioa, %95eko karbonoarekin	Karbono dioxidoa
Gasa	Diamantea
Kobre-eztainu aleazioa	Brontzea
Mineral kristalizatua	DM
Elementu kimikoa	Nailona
Erregai fosila	Plutonioa
Egurretik eratorria	Petroleoa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
ZIENTZIETAKO ETA INGENIARITZAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrila 25 ekoa

2024-05-23

TEKNOLOGIA INDUSTRIALA

- 5.-) Irudiko zilindro pneumatikoaren barruko presioa 6 bar-ekoa da.
- a) Kalkulatu jasaten ari den pisua, enboloak 50 mm-ko diametroa badu.
 - b) Kalkulatu zilindroaren bolumena, 30 cm-ko luzera badu.

(1 bar = 100 000 Pa)

